

## ESAMOLDEAK EUSKARAZ

### 1. Irakurri testua.

#### Euliarena

Goiz batean, euli bat jaiki zen, eta esan zuen: "Gaur zeregin asko dut".

Bost zeregin bete behar zituen egun hartan. Lehenik, ogi apurrak bildu; bigarrenik, harraskako putzuan musua garbitu eta ura edan; hirugarrenik, hegan airean mezu batzuk idatzi, marrazki eta guzti. Laugarrenik, lagun baten edo besteren kontra lasterketa egin hegan. Eta bosgarrenik? Arduratuta zegoen. Bosgarren zeregina ahaztu egin zitzaion.

Aurreko hanka kopetan jarri, eta oroitzen saiatu zen. Alferrik, ordea. Beste hankarekin ere kopeta igurtziz, halaxe egon zen egun osoan, bosgarren eginbeharra oroitu nahian. Ez zuen ogi apurrik jan, ez zuen musurik garbitu, ez urik edan, ez zuen airean mezurik idatzi, ez marraztu, ez zuen lasterketarik jokatu.

—Zer duzu, lagun? —galdetzen zioten beste euliek.

—Ez dudala oroitzen bosgarren eginbeharra.

Esan zioten uzteko alde batera bosgarrena, eta egiteko beste laurak. Baina eulia egoskorra zen; ez zen mugituko, bosgarren eginbeharra gogoratu arte. Hala zegoela, mutiko bihurri bat atzetik etorri eta eskuz dak! harrapatu zuen. Hura iluna esku barruan! Hura beldurra! Gero, mutiko bihurriak hegalak errotuladorez margotu zizkion, horiz. Barreka, aske utzi zuen.

—Bosgarren eginkizuna —oroitu zuen bat-batean euliak—: ume bihurriengandik urruti ibiltzea!

JUAN KHAZ IGERABIDE  
"Hiri zomorro eta erdi" (egokitua)  
Behinola, 26. zk.

### 2. Beste euliek esaten zioten uzteko bosgarren zeregina eta egiteko beste laurak. Baina ez zien kasurik egiten. Nola ote zeuden euliak? Aukeratu sentimendu hori adierazteko esamolde egokia.

- Irrikan zeuden.
- Kale gorrian zeuden.
- Tripak jaten zeuden.

### 3. Lotu gezi bidez ezkerreko esamoldeak haren pareko esanahia duten esaldiekin.

- |                          |                         |
|--------------------------|-------------------------|
| tripak jaten egon        | desiratzen egon         |
| irrikan egon             | erabat haserretuta egon |
| kale gorrian egon        | neka-neka eginda egon   |
| bere onetik irtenda egon | lanik gabe egon         |
| lur jota                 | sufritzen egon          |

## ESAMOLDEAK EUSKARAZ

### 4. Osatu esaldiak, eraman esamolde bakoitza dagokion hutsunera.

bere onetik irten • lau haizetara • ganbara ondo alokatuta • harpa jo

- Neskato horrek asko daki; ..... dauka.
- Lagunari esan nion kontatu niona isilik gordetzeko, baina ..... zabaldu zuen.
- Ainhoari bere CDa galdu nuela esan nionean, ..... da jarri zen.
- Ander Idoiari ..... tzen ari zaio, baina Idoia ez da konturatzen.

### 5. Aukeratu euskarazko esamolde egokia.

a	kokoteraino egon	sudurreraino egon
b	ahoa irekita gelditu	ahoa bete hortz gelditu
c	ilea hartu	adarra jo
d	odola irakiten eduki	odola egosten eduki

### 6. Egin esaldi bana 5. Ariketan aukeratu dituzun esamoldeekin.